


San Tomas eguneko feririk onena

DONOSTIYAN

(Azkeneko indar-neurtzeetan aipamen onragarria irabazia.)

I

LURRA jo gabeak ziraden artean, arako errespeto aundiko murru beltz, isill sendo, lau edo bost eunkian, egon ziranak zut zuta gau ta egun zelatatzen, gure Donosti chiki chukun ta polita, non orain ezik orduan ere, gauza pitiña zalarik, zenbait dierritarren ondamua eta alako ezin eraman bat zuena.



Atsentuaz bere pareta beltzen, ikusten zan arri marmolezko iturri galai bat egoki landua; gañ gañean, leoi arroti eder galanta, bere adatsa ugariya bizkar gañetik orraztu moduan, grazi ederrean eroritzen zitayola eta abo zabaletik chorrokada luzean, jarro apain larri batera, ur zillarreztatu ugariya, iraitzi edo botatzen zuda.

Bere aurrez aurre, plaza zarreko arruztai edo arkupe choko chokoan, erdi ezkutuan, anche zegoan bere bi ate berdeakin, dendacho bat, feri gausez oso poliki apindua, erakutziyaz atien kristal barrendik, jostallu tentatzalle asko eta guziyen erdi erdiyan, gallanduaz bere chimini luze luzeakin gorritz pintatua, su-ontzi aundi eder

bat, olezko mariñel pizkorrak, nor bere lekuan dauzkala. Eskui ezkerretan, errespeto aundiyan, ojaletezko sutunpa errenkara luzea, beren aboak erakutziyaz, ziruditela sututa kiskaldu bear zituela baztar guziyak.

Atze atzean, ziri mear baten mutur muturrean, paperezko bandera pachandioso luze luze bat, gallardeatuaz, egaatuko balitz bezela aizera.

Josecho, zortzi bat urteko mutill biñi biñi, ille kizkur, begi belch bat, gudari mariñel modura guztiz apaña, arkitzen zan goiz batean, denda arenchen kristalean irrikitzen gorriz pintatutako ontzi tentatzalleari begira, begi belch eder ayek zabal zabalduaz eta beatzez zuzen señalatuaz, ziyon bere moduz:

—San Tomas eguna allegatzian, nik esango diyot nere aitonari, erosteko ontziyori, bere bandera eta mariñel guziyakiñ; gero echian sartuko det bañu ontziyan eta aitonen ezpata luze luzia eskuan detala, aginduko det su egiteko, marrueko guziyak ill arte, eta illko det gañera, nere osaba Fernando kapitana ill zuben moro beltza.

Allegatu da berandu berenik, ainbeste amets gozo feri zaliari eragiten dituen egun zoragarriya. Guchitan bezela, egoaldi legorra fortunatu zan, baña otza, chit otza; eguzki ederren kopeta zabala, ikusten zan churi churi eta indar gabe, azaldu ordurako ezkututzen zala, otzaren ikaraz balitz bezela.

Agindu moduan, bialdu diyozkate mariñel gazteari goiz azki, osabak, izebak eta bere amaidi andre Karmen-ek, kajacho gorri batean, berunezko soldadu zaldunak, chit poliki pintatuak, beste kajacho bat, olezko soldadu oñezkoak galtza gorriz apainduak; gañera arbol, arku-me churi churi, ezpata berri luze bat, charratera urre kolorekoak eta nik eztakit zenbat gauza polit geyago.

Guziyak mai gañean nastutuaz gereziyak bezela, bere pozean, etzan oroitu goiz artan, ez chokolaterik artzea eta amari esku gañean muñ ematea, bezela.

Mai biribill baten jiran, ezpata luzea eskuan duela, agintzen ziyon boz indarrean, soldadu, arkume eta arbolari, ezkerreko eskua ezpañchoetan ipiñi eta tronpet'atabalak joaz gudariyen modura, kaletik aitzen zirala. ¡Aren poza! ¿eta nola ez izan, zortzi urteko umeak, gauza ayen guziyen jabe egin da?

Charraterak jarri eta ezpata gerritik zintzilik duela iya lurra joaz, agintari aundi bat egiñik, arkitu du aitona eta iru edo lau musu emanaz, eskutik tiraka-tiraka, irten dira echetik; aitona, mariñelakin far

batzuek egiteko ustean eta illoba, aitona churikatuaz, ia guda-ontziya, bere ojaletzeko sutunpakin erosten diyon.

Jachi diranean sarbidera, lenengo eskallera mallan arkitu dute eserita, zazpi, zortzi urteko mutill belcheran bat, bertako atezayen semea, *lauko* ausi batzuekin, gizagaiñoa jostatzen zala, bere amak zapi garbi zuri batekin, eskallera buruko brontzesko bola garbitu eta leundu bi-tartean. Onek, mutilcho ura, alako feri ederrakin ikusirik, diyo chit penatua:

—¡Egiya!..... ¡feri eguna gaur izan!..... ¡Santo Tomas!

Joaten da ezpata dun mutill inozentea eskallera kua gana eta pozez bete, ta far-antzen, galdetzen diyo kariño aundiz:

—¿Amak zer feri egin dizu, Shanti?

Alchatzen du batetan buru belcheran polit ura, eta ezeren kontu gabe, kartoizko *laukuak* bilduaz, begiratu diyo aingeru baten modura eta ezdiyo gaiñuak itz bat erantzuten.

Amak ura entzun, da arantza pozoitu beltzak zulatu balu bezela, begi buztiyayek zerura jasoaz, usten du tristea eritua biyotzen erdi erdiyan eta erantzuten diyo mutilchoari chit sentimentu aundiz:

—¿Alargun triste pobre batek, ¡nere izarra! zer feri nai dezu egitea? ¡Nola besterik ezer ez nuen, eman diyozkat biyotzez, eldu ta..... ¡¡bi laztan gozo!!

¡Amaren dolore triste ura ja! ¿nola esagutu zezakean zortzi urteko aur inozente batek? ¿Nola estimatu bere baliyoan, biyotzeko naigabe garratz ura?

Kalera irteerakoan aitona bere illobachoakin, diyo onek:

—Nik ere asko maite det nere amacho ona—aitonari alako begiratu miragarri bat egiñik—, baña bi musu bakarrik..... ¡a zer feriya ori!..... ¿aitona e?

Amak segitzen du berritik lengo lanean, brontze bola leunduaz eta esku gañez penaren malkoak leortzen zituela; mutilla, len bezela jostatzen da errenkaran jarryaz kartoizko *laukoak* eskallera mallan.

II

Ondorengo urtean, San Tomas egunez, berriro bialdu ziyozkaten Josechori feri guztagarriyak, baña egun pozgarriyartan arkitzen ziran beltzez jantziyak eta añ triste, nola abenduko arratz beltz ikarati bat.

Etzan udaberriko chori kantaren moduko far-irrik eta ez zoriona-

ren erantzun gozorik iñoiz bezela. ¿Nola poztasun alai ayek guziyak ez gelditu illundurik, bere biyotzeko amacho laztana betiko ill bazan? ¡Tristea!

Berak bai, amak berak aur bat egiñik, moldatzen ziyozkan bere laztana jostatu zedin, maicho baten gañean, soldadu errenkarak, arku-me churi eta beste jostallu asko..... ¡eta Jesus, Jesus!..... ¿baña nork esan zezakean, añ laister galdu bear zuela echeko poz gozo ura?

¡Ama biyotzekoaren asnas eztiya, itzalpe otz artatik ezta nabaituko geyago! ¡Añ zan šamurra, gozoa, ona ta maitatiya, zenbat eta maizago oroitu, orduan da geyago sentigarri zana!

Oñasezko oroitzak ala chimikaturik, etzuen jostallurik gogo onez artzen. Etzuen aboz jotzen, bere amacho bizi zanean bezela, atabal tronpetik, ¡gaišua!

Goiz batean, jachi zan triste ta išillik sarbidera. Atezaya ari zan bere mutillchoa alboan zuela, amilla šar bati arabakiya jartzen eta..... ¿nork esan zezakean, ume penatu aren gogora etorri bear zutela alargun triste aren itz šamur gozo ayek?

¡Oroitzen zan, bai, oroitzen zan, amak Shantiri eman ziyozkan musu laztan gozoaz! ¡Esagutzen zituen nonbait, añ aurra zalarik falta zituela bere amaren arrimo beroa eta bere betiko laztan atsegiñak.

Atezayaren mutill koškorak, etzuen ez soldadu pintaturik, ez arkume churirik eta ez arbolchorik; baña bai bere masall belcheranean, bi musu laztan gozo, malkotan buztiyak bere ama maiteak, amoriyo gozoz emanak.

¡Eta nork daki! agiyan azturik feriyak, ume ama gabeak esan zezakean, animaz pentsatu ta begiyak buztirik:

¡Nork izan lezakean, alako laztan musu gozo bat!

VICTORIANO IRAOLA

